

Ezin bizi arterik gabe

May Colmenero,
pinturari lotuta ▶ 2-3



Aurrera darraite San Migel jaiek

PARTAIDETZA ▶ Parte-hartze handia izan zen atzoko ekitaldietan Aldaban eta Iruran

IRURA ▶ Gaur abereak, kirolak, Katalunia eta Poloniako dantzak eta Ruper Ordorika izango dira.

ALDABA ▶ Meza, pilota, trikitixa, dantza eta haur jolasak daude gaurko egitarauan ▶ 5



JAIONE ASTIBIA

Greban hasi dira Gerontologikoan

TOLOSA ▶ Atzo langileen kontzentrazioa izan zen Euskal Herria plazan asistentzia zerbitzuan murrizketarik ez izatea eskatzeko ▶ 6

ESTÉE LAUDER OPARI EDERRA

ESTÉE LAUDER OPARI EDERRA

Estée Lauder, produktuen erosketagatik, horietako bat aurpegiko tratamendua izanik.

Lirain

San Ignacio, 14 • BEASAIN
Garagartza plaza, 1 • ORDIZIA
San Frantzisko ibiltokia, 8 • TOLOSA



www.eesteelauder.es

Eskaintza hau 2004ko irailak 27tik urriaren 2a arte baliagarria da.



Uzturretik ▶
AGUSTIN AMIANO

Plaza txikiko hotsak eta hautsak

Eskusoinu zahar hau hautsak hartu du eta alboan zegoen panderoa etxeko sarrerako apaingarri bihurtu da iltze batetik zintzilik. Gainean erantsi zaion hautsak gaztetako distira jan dio eta orduko sasoia galdutako gogora arazi dio. Etsipenak hartu du eta «garai bateko» soinu-hotsak eta dantza saioak datozkio azalera.

Garai batekoa? Zein garaitan bizi gara bada?

Noraino aldatu nahi dugu guztia horren epe motzean?

Soinu zahar honek asaldatuta bizi izan ditu aurtengo jaietako musika doinuak, edo lurrikaraz lagundutako trumoi zaratak. Ganbarako leiho txikitik, orro zakarrenak askatzen dituen talde batek jaietako kartel handienak merezi dituela ikusi du, eta jende kopuru ugariena bildu, gainera.

Bera kontsolatzeko balio dezaken ondorio bat atera du ordea: horrenbesteko zarata, dantza eta kriskitin hotsik ez dagoelako ateratzen dutela, gabeziak betetzeko, alegia.

Keak hautsak ordezkatu du, «trumoisikak» herriko doinu alaia, eta plazaz-plaza zebilen bikote haren ordeze seikote berezi bat ageri da kiosko gainean. Argi, hari eta tresna tartean bada sabaiko toldorainoko jauziak egiten dituen gazte bat, gainera. Ai, gure Joxemielek honelako jauziak egin izan balitu, pandero hori burutik eta ipurmasiletik bueltan ibili ordez...

Plazak dantzari talde bibrilak jende multzo bilakatu direla ziurtatu du, non zainzuriak potean bezala, mugitzeko espaziorik gabe, lepoko atzera-aurrera mugimendu batzuk ariketa bakarrean bihurtu diren. Ikusmena eta entzumena gozatzeko baliagarria zena, bigarren hau hondatzeko besterik ez ote den galdetu dio bere azken teklari. Eta honek hala dela erantzun dio.

Herri txikitako jaiak zerk aldatu edo uxatu dituen ezin du ulertu, ezin du errudunik aurkitu.

Hautsak kenduko dizkion zapi leunaren zain geratuko da, baina batez ere, bera astinduko duen esku goxo eta trebarean zain.

IRITZIA ▶ EGOITZ SOROZABAL (ZIZURKILGO UDALEKO HIRIGINTZA ZINEGOTZIA)

Benetako balorazioa, datorren urtean

Eskualdeko hainbat herritan bezalaxe, Zizurkilen ere iragan den aste honetan hainbat ekitaldi burutu dituzte herritarrek, talde eta elkarteetako kideek eta udal arduradunek Europatik datorren Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatzeko.

Aste honen antolaketaekin Zizurkilgo Udalaren xedea bikoitza izan da: batetik, eta helduoi dagokigunez, gogoeta egitea autoari ematen diogun erabilpen irrazionalari buruz, eta, bestetik, haurrei zuzenduta, heziketaren ildotik, ekimen ugari egin dituzte herrian helduok autoaren inguruan ditugun ohitura txarrak haiek berenagatu ez ditzaten.

Burututako jarduera ezberdinen artean, bost udalek [Tolosakoa, Anoetako, Irurakoa, Villabonakoa eta Zizurkilgoa] prestatutako Erniopeko txirrindulari bira eta Villabonak, Zizurkilek eta Asteasuk elkarlanean egindako Bidegorriaren aurreproiektua azpimarratuko nituzke. Izan ere, beste gai askorekin gertatzen den bezala, mugikortasun iraunkorrari dagokionez, herri ezberdinetako biztanleek eskaera berberak dituzte (bidegorriak eraikitzea, garraio publikoa hobetzea...) eta geure eskual-

deko udal txikiek arazo horiei benetako erantzun bat eman nahi badiete behar-beharrezkoa da indarrak batzea; guztiok amankomunean lan egitea, alegia. Zentzu honetan, esango nuke lehenago aipatutako bi ekintzek garrantzia izan badutela.

Bihartik aurrera aste honetan zehar hainbeste entzun ditugun esaldiek —oinezkoen eskubideak aldarrikatzea, kutsadura murriztea, bizi-kalitatea hobetzea...— ez dute oihartzun handiegirik izango komunikabideetan eta orduan hasiko da, gai horren inguruan, benetako erronka.

Hurrengo 365 egunetan, Zizurkilgo Udalaren aldetik trafikoaren arazoa arinduko duten neurriak aurkitzeko eta oinezkoiei eta txirrindulariei herrian ero-

so ibil daitezen azpiegitura hobeak eskaintzeko urrats ezberdinak eman behar dira, baina ez da ahaztu behar herritarrok ere geure erantzukizuna badutela eta hainbat arazoren giltza gure esku dagoela.

Aurtengo astearen benetako balorazioa datorren urteko Mugikortasun Iraunkorraren Astearen burutzea ezinbestekoa dela deritzot. Bertan, ekitaldi horien baitan, aztertu behar lirateke aurreko 12 hilabeteetan egindako lanak. Zeren eta urteaz urte, inongo balorazio edo erreflexiorik egin gabe, udalek mugikortasun iraunkorraren aldeko egun batzuk antolatzen badituzte, inolako ondorioz ez duen ekintza sinboliko edo ohitura bihurtuko da ospatu berri dugun astea.

ELKARLANA

«Herri ezberdinetako biztanleek eskaera berberak dituzte, eta eskualdeko udalek arazo horiei benetako erantzuna emateko beharrezkoa da indarrak batzea»

BALORAZIOA

«Aurtengo Mugikortasun Astearen balorazioa datorren urteko astearen egitea ezinbestekoa da; bertan aztertu behar lirateke aurreko 12 hilabeteetan egindako lanak»

MAY COLMENERO ▶ PINTOREA ETA PINTURA IRAKASLEA

«Ez nuke asmatuko bizitzen arterik gabe»

Artea du bizitzaren oinarri May Colmenero pintore tolosarrak; ez du espezializatu nahi, zoriontsu izan baizik; egiten duenarekin gustura egotea nahikoa du horretarako

LEIRE MONTES

Irribarretsu hartu du kazetaria May Colmenero pintore tolosarrak. Eta irribarra ez da bere ahotik desagertu elkarriketak iraun duen denbora guztian. Bizitzari ere hala begiratzen dio, alai. Postasun horren isla dira haren margolanak.

Zer izan nahi zenuen txikitan? Pintura afizio izan dut betidanik. Baina pixkanaka-pixkanaka ofizio bihurtu zen. Margoren bat eskuan ibiltzen nintzen txikitan beti, eta halaxe jarraitzen dut oraindik ere.

Eta ez al zara nekatu?

Nekatu? Gazte nintzenean Valladolidera eta Madrilera joan behar izan nuen ikastera, Donostian ere izan nintzen... Hara eta hona ibili izan naiz beti; landu nahi nuen teknikaren eta estiloaren arabera akademiak

eta irakaslez aldatu, eta ikastetira. Egia esan, inoiz ez diot utzi ikastetiri. Benetan gustuko dut. **Zure bidaia ikusi nahi dituzun museoan edo autoreen lanen arabera antolatzen omen dituzu...** Gehiago jakiteko edo sakontzeko sentitzen dudaren behararen arabera programatzen dut hara edo hona joan. Erroman egon nintzen Miguel Angelen eskola gertutik ezagutzeko, Anberesen Rubens buruz ikasteko, Amsterdamen Van Gogh-ek txunditu ninduen, Lanzaroten Cesar Manriquek...

25 urte bete dituzu irakasle. Ikasitakoa besteei transmititzeko beharra sentitu al zenuen?

Niregatik baino, besteengatik hasi nintzen eskolak ematen. Nirekin margotzea etortzen ziren haurrak, zer egiten nuen

ikustera... Ia-ia behartu egin ninduten; ez nuen pentsatzen irakaskuntzan jardutea, baina orain poztu egiten naiz hasi izanaz.

Zer nahiago: irakatsi ala eskolak jaso?

Irakaskuntzan oso murgilduta nago egun. Pozez, zorionez betetzen nau haur eta gazteekin aritzeak. Animatu egiten naute, eta hainbeste maitasun jasotzen dut haiengandik... Gainera, uneoro ari naiz ikasten: irakaspen trukaketa dago gurean; baita edukazioarena, errespetuarena, baloreena ere. **Pintore batek hartzen al du erretiroa inoiz?**

Ez didate uzten! [barrez]. Oso pozik nago, baina 60 urte betetzen erretiratzeko asmoa dut.

Gogoan al duzu margotu zenuen lehen koadroa?

Hiru urte nitueneko marraz-

kiak gorderik ditut etxean, baina ez dut gogoratzen zein eta noiz izan zen lehena. Gogoan dut, hori bai, erakusgai jarri nituen lehendabiziko bi koadroak, Donostiako Kutxako aretoan, duela 25 urte inguru: mimosaz beteriko lorontzi bat eta Hondarribiako zenbait etxe.

Egindako koadrorik gustukoa?

Uf! Garai bakoitzean bat... Adibidez, duela 16 bat urte egindako bi koadro ditut gustuko: Tolosaldeko baserri zahar bat eta neguko irudi bat. Bietan teknika berritzaileak erabili nituen —hondarra, lurra...—; aldatzeko beharra sentitu nuen.

Margotu al zaituzte inoiz?

Zenbait ikaslek bai. Eta nik ere egin izan dut autorretraturik. Sentsazio arraroa izan zen hasieran, baina gustuko dut.

Zein teknikarekin sentitzen zara erosen?

Olioarekin, menderatu egiten dudalako. Baina akuarela da liluratu egiten nauena; teknika zailena da nire iritziz, baina emaitzak ikusmenari ematen dion plazerak ezin da ezerekin konparatu. Nire ibilbidean denetik egin dut: espatula, ikatz-marrazkia, pastela, olio, eskultura ere landu nuen... Baina ez dut teknika batean espezializatu nahi; zoriontsu izan nahi dut, eta egiten duenarekin gustura egotea nahikoa da horretarako.

IRITZIA ► ESKUALDEKO GUDARIEN SENIDEAK

Gudarien borroka, herriaren indarra

Gudari Eguna Euskal Herriaren askatasunaren alde, gure herriaren eskubideen defentsan, bidean erori diren borrokalariak gogora ekartzeko egun berezia da.

Txabi Etxebarrieta, Txabi 1968ko ekainean hil zuten. Oihane Errazkin Zapa, 2004ko uztailan. 36 urte igaro dira. 202 gudari gelditu dira bidean. Euskal Herri luze zabalean, independentzia lortu bitarteko egun guztietan, bizitza ematerainoko burkideen konpromisoa eredu izango da guretzat.

Egun, gure herriaren geroaren inguruan eztabaida mamitsua zabalik dago. Aukera berri baten aurrean gaude. Lehenik eta behin gure herria bizirik dagoelako. Eta gure herria bizirik dago, batez ere, gudarien borroka eskar. Txabi, Zapa, gudari guztiek, haien bizitza eman dute, gure herria bizi dadin.

Gudarien borroka eskar, herri antolakundeetan militatu eta militarizatu ari zaren guztion ahaleginari esker, ekarpen xumea eginez edota herrigintzan aritutako eta ari zarenen esker, Euskal Herriaren askatasun borroka itozteko Espainiak eta Frantziak antolatutako estrategiek huts egin dute.

Izugarrizko aurrera urratsa egin dugu urte hauetan guztietan. Azken hamarkadan. Oso garrantzitsua da gertatutakoaren perspektiba hartzea. Espainiako Konstituzioaren kume diren Moncloako estatutua eta Nafarroako Foru Hobekuntza ez genituen onartu eta inposaketari aurre egiteko erabakia hartu genuen. Herriari 78-79ko iruzurra erakutsi egin diogu. Zapaltzen gaituzten marko politikoen mugak erakutsi dizkiogu. Marko Autonomikoa krisi sakon batetara eramanez dugu.

Espainiako botereek garrantzi handiko testuinguru politiko honetan Alderdi Popularraren esku utzi zuten ezker abertzalea anikilatzeke, desegiteke, erantzukizuna. Urte gogorak izan dira. Euskal Herriak eraso handia jaso du azken urteetan. Nahi izan duten guztia egiteko argi berdea izan dute. Porrot egin dute. Alderdi Popularraren ildo errepre-sioa garaitu egin dugu. Ezker abertzaleak egoerari eutsi egin dio eta iniziatiba politikorako gaitasuna erakutsi du.

Honenbestez, Euskal Herria bizirik bakarrik ez, bere buruaren jabe izateko sakontasun handiko urratsa egiten ari da. Frantziaren eta Espainiaren inpos-

ketaren, ukazioaren eta zatiketaren gaitetik, nazio eraikuntzari ekin zaiolako. Indarrak egituratu eta Euskal Herriaren zutoinak eraikitzeke tresnak abian ezarri direlako.

Orain, egoera berri batean gaudelarik, eragile asko ezker abertzaleak egingo duen proposamenari begira dago. Erantzuna argia da. Gatazka konpontzeko gakoa mahai gainean dago: autodeterminazioa. Euskal Herri osoan gatazka gainditzea ekarriko duen herri galdetara burutzea datza ziklo politiko berria. Euskal herritarrei nola bermatuko zaie iritzia eman eta Espainiak eta Frantziak iritzi hori errespetatzea.

Zentzu honetan, ezker abertzaleak ez du Ibarretxe Plana onartzen, eta ez du onartuko. Ez esaten jarraituko diogu Estatutuaren erreforma bilatzen duen Planari. Beraz, ez Ibarretxek aurkeztzen duen estatutuari, ez gatazkaren luzamendua besterik ekarriko ez duen iruzur berriari.

Baina ezker abertzalea prest dago autodeterminazioa eta herriari hitza ematearen oinarriaren gainean, Euskal Herriaren aitortpena lortzeko, Euskal Herriaren aldeko indarren artean ados-

tasun puntuak bilatzeko. Eta Ibarretxeren Atarikoak horretarako aukerak eta oinarri batzuk eskaintzen dituela uste dugu.

Ezker abertzaleak borondatea dauka gatazkaren konponbidean urratsak egiteko oinarri horien gainean. Baita Espainia eta Frantziako Gobernuekin gatazka elkarriketaren bidez konponbidean jartzeko eskua luzaturik ere.

Alabaina, ez dadila inor engainatu, Euskal Herriak etengabeko erasoapean jarraitzen du. Estatuaren errepresio politikak ez du etenik. Hortaz, bakea eskuratzeko eskua luzaturik daukagula esaten dugun tinkotasun berdinarekin esaten dugu, ezker abertzalearen ukabila altxatuta dagoela gure herriaren eskubideak lortu bitartean borrokan jarraitzeko. Askatsuna lortu arte.

Erronka handiak izango ditugu datoren hilabeteotan. Ezker abertzalearentzat antolakuntza eta borroka garaiki dira. Borrokan eroritako gudarien oroimenez, Euskal Herriaren defentsan bizia eman duten gudarien omenez: antolakuntza eta borroka ekin!

Gora Tolosaldeko gudari guztiak! Izan direlako gara eta izango dira.

PERTSONALKI ►

► Tolosan jaioa ► Bere pintura bezain alai eta koloretsua ► Artea du pasio ► Baita familia, bere «umeak» —ikasleak— eta bizitza bera ere

Zer kolore jarriko zenioke Tolosari? Grisa eta urdinxkak erabiliko nituzke, herriari dagokion maila eman diezaioten; mendiaren-tzat, urdina eta horia nahasturik lortutako berdea. **Bizitzari?** Horia. Poza eta zoriona adierazten du; orokorrean, zoriontsu izan naiz. **Zeure buruari?** Larrosa, gorria... Maitasun eta poz koloreak.

KOLOREA

«Horia gehienetan erabiltzen dut; kolore alaia da, pozez eta zorionez beterikoa; nire antzera»



Pintore bat aukeratu beharko bazenu?

Ezinezkoa egiten zait: Goya, Turner, Ribera, Rembrandt, Rubens, Da Vinci, Matisse, Klee, Dali, Kandinsky, Gauguin, El Greco, Velazquez, Sorolla, Miro, Murillo, Van Gogh, Fernando de Amara euskalduna...; hainbeste!

Koadro bakarrik bai?

La familia comiendo patatas, Vincent Van Gogh-ena.

Museo bat?

Parisko Louvre. Ikusi nuen lehenengoetarikoa izan zen, eta oroitzapen berezia dut.

Eta estilo bat?

Nahiago dut figuratiboa abs-

traktoa baino. Baina, orokorrean, hitz egiten didan edozein koadro dut gustuko. Margolan batek zer edo zer esan behar dit betetzeko.

Kolore bat?

Horia. Kolore horia gehienetan erabiltzen dut. Koadro bati zer-bait falta zaiola sumatzen dudanean, kolore horia dela jabetzen naiz gehienetan. Kolore alaia da, pozez eta zorionez beterikoa. Nire antzera.

Nolakoa izango litzateke zure bizitza pinturarik gabe?

Pintura dena da niretzat. Ez nuke asmatuko bizitzaren arterik gabe; ezta artearekin gozatzen duten pertsonik gabe ere.



LEIRE MONTE

KOMUNIKABIDEAK ▶



Jon Mirandak koordinazio eta zuzentzaile lanak betetzen ditu Anoetako Edurka pabilioietako estudioetan. NOELIA LATABURU

Irrati uhinetan barrena

Txolarre irratiak jendearen parte-hartzea sustatu nahi du lanurte honetan, kolaborazioak zein saioak egiteko aukerak emanez

NOELIA LATABURU

Merezitako oporrak gozatu ondoren, indar berriturik bueltatu da eskualdeko Txolarre irrati bere emisora (107.5 FM, Tolosan 104.9). Jadanik lau urte luze badira lehen aldiz irrati piztu eta Txolarre irratiaren sintonia entzuteko aukera izan genuenetik. «Abenduaren 26an beteko ditugu lau urte eta pixkanaka pixkanaka gure irrati sendotzen ari den proiektua da», baieztatu du Jon Mirandak, *Tolosaldeko ahotsa* goizeko programaren zuzendaria eta aurkezlea.

Epe hau nahikoa izan da entzulego fidela lortzeko; baina aurretik lan talde bat aritu da kementsu lanean. Baliabideak lortzea zaila suertatu zaio lan talde honi, hauek ez baitira nahikoak «ez teknikoki ezta

ekonomikoki ere»; hala ere, beraien etekin osoa ateratzen dietela ziurtatu du Txolarreko esatariak. Taldea arnas berritu beharra dagoela azpimarratu du Mirandak eta «jendeak ere irratiaren kudeaketan parte har dezala» eskatu du.

Orain arte egindako lanarekin pozik azaltzen da Txolarrearen atzean dagoen lan taldea. Irratiaren ildoak fidelki mantendu da; era berean, argi du erantzunkizun handiako lana dela berea, entzuleengan eragina lor daitekeelako. «Zentzu honean, argi daukagu zer nolako Tolosaldea nahi dugun: euskalduna, solidarioa, feminista, ekologista,... eta balore hauek zabalitzen saiatzen gara», esan du Jon Mirandak. Irratia, aldi berean, herritarren eskura dagoen medioa dela dio Mirandak eta «zabalik dago etorri nahi duen guztientzat».

Formakuntza iturri

Irratia martxan jarri zenetik, gerora beste irrati eta komunikabideetara salto egin duten ikasleak egon dira praktikak burutzen. Uztailean, besteak beste, Leire Zubeldia aritu zen Txolarre irratiaren praktiketan eta hilabete honetan Igotz Alkortaren txanda izan da. Biak ere, ikasleak izanda, larunbateroko *Hitzak hegan* saioko gidariak dira.

«Txolarrek formakuntza eskaini die gazte hauei, baita beste askori ere eta horretan jarraitzeko asmoa du», ziurtatu du Mirandak.

Erronka berriak

Helburu berriak proposatu ditu irratiaren sostengatzen eta bultzatzen duen talde eragileak lanurte honetarako, besteak

beste, proiektua hazteko borondatea du, baina hori lortzeko Tolosaldeko udalen laguntza eskatzen du. «Tolosaldeko udalen diru laguntza ona da. Biztanle bakoitzeko euro bat eskatzen dugu. Dena den, konpromiso handiagoa eskatuko genieke» aitortzen du Mirandak.

Diru laguntza hauek dira Irratiak dituen finantzabide nagusiak. Gainerako laguntza festetan jartzen diren txosnetan edota bestelako ekimenen bidez —kamisetak, pegatiak— lortzen dena izaten da. Irratiko lan taldearen helburua udalen laguntzak aurrekontuak betetzeko nahikoa izatea da.

Honekin batera, eskualdeko gainerako komunikabideen elkarlana eskatzen du Txolarre irratiak, Tolosaldearentzat euskarazko kalitatezko proiektu

tu komunikatiboa eskaini ahal izateko.

Arazo orografikoei ere aurre egin nahi die Txolarrek. Gaur egun zaila egiten baitaie Tolosaldeko hainbat herritarra iristea.

Deialdia

Txolarreko atea irekiak egongo dira Anoetako Edurka pabilioian irrati ezagutu nahi dutenentzat eta ikastaroak antolatuko dira urriaren bukaeratik aurrera kolaborazioren bat edota saioaren bat egin nahi dutenentzat. Deialdia Tolosaldeko gizarte eragile eta taldeen zuzen erabakirik egongo da. Izen-ematea 943 69 80 38 telefonoan izango da. Goizeroko saioan ere parte hartzera gonbidatzen du Txolarrek telefono zenbaki berbera hots eginez gero.

PROGRAMAZIOA ▶

Urritik aurrera, Txolarre Irratiko emisora (107.5 FM, Tolosan 104.9) programa ezberdinak entzuteko aukera izango da.

EGUNEZ EGUN

Astelehenetik ostiralera. 11:00etatik 14:00etara *Tolosaldeko ahotsa* irratsaioa. Astelehenetan kirola, asteartean nekazaritza eta ostegunetan osasunari buruzko atal bereziak. Urritik aurrera, 22:00etatik aurrera musikari eskainitako saio librea astelehenetik ostegunera.

Larunbata. Urritik aurrera *Hitzak hegan* saioa iznago da goizetan.

Igandea. Ez da emanaldirik izaten Txolarre irratiaren.

JON MIRANDA

TXOLARREKO KOORDINATZAILEA

«Abenduaren 26an beteko ditugu lau urte eta pixkanaka gure irrati sendotzen ari den proiektua da»

iragarki laburrak ▶

Administrazio laguntzailea. Eusko Jaurlaritzan eta udaletan lan egiteko: Zarautz (6 lanpostu), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara. Informazioa doan 943 65 01 93.
Gidariak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udal ezberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa zaitaz

eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Sukaldari laguntzaileak, garbitzaileak, zerbitzariak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan, Foru Aldundian eta ikastetxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Udal haurtzaindegiek honako langileak behar dituzte: irakasleak, hezitzaileak, zaintzaileak eta laguntzaileak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Liburutegiak, harreragileak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan eta Foru Aldundian.

Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.
Laborategiko teknikari, laguntzaileak. Ur depuratzailerren kontrola, analisi klinikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Ezinduak. Erreserbatutako lanpostu finkoak. Gubxienez %33ko

ezintasuna duten pertsonentzat. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Basozaina. 17 postu libre Administrazio Publikoan. Informazioa doan. Deitu. 943 65 01 93.
Udaltzaingoa. Lanpostu libreak udalbetxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

IRURAKO ETA ALDABAKO SAN MIGEL JAIK ▶

Parte-hartze nabarmena, San Migel jaietako ekitaldietan

Irurako marrazki lehiaketan herensugea marraztu zuten gehienek

OLAIA ESKITXABEL

Udazkenean ere jai giroa somatzen da eskualdeko hainbat herritan; San Migel jaietan murgilduta daude irurarrak eta aldabarrak.

Herenegun, herensugearen jaitsierarekin eman zitzaizen hasiera Irurako jaiak: «Heren-sugearen jaitsierak erabat txundituta utzi zituen herritarak; eta batez ere gaztetxoak», azaldu zuen atzo Marimi Ugaldek, herriko alkateak. Txundituraren arrastoak soma zitezkeen atzoko marrazki lehiaketan, izan ere, parte-hartzaile gehienek herensugea irudikatu zuten.

Berrogeita hamar gaztetxo inguruk eman zuten izena marrazki lehiaketan; bi urteko artistak izan ziren parte-hartzaileak gazteenak. Batzuk, Elizako arkupeetan jarritako mahaian jarrita margotu zuten; beste batzuk, jaietako eszenatokiaren gainera igo ziren. Pa-



Irura. Jaietako zapia lepoan, eta arkatza eskuan marrazten eman zuten goiza gaztetxoak. O.ESKITXABEL

perak, arkatzak, ezeztekoak eta margoak aukeran izan zituzten gaztetxoak.

Arratsaldean zehar ere haurrentzako ekitaldi ugari izan zituzten: ludoteka, tailerrak eta ikuskizunak, besteak beste.

Tiratzaileren proba

Txupinazoaren soinuaren ondoren, tiro hotsak hartu zuen lekukoa Aldabako San Migel jaietan. Urtero bezala, Saltsalde zelaian bildu ziren herriko tiratzaileak usadiozko bihurtu den plater hausketan lehiaketan. Hamabost lagun inguruk hartu zuten parte eta hiru talde egin zituzten; plater gutxi geratu zen han oso-osorik; tiratzaile finak dira nonbait aldabarrak.

Arratsalderako mahaia eta aulkiak jarri zituzten pilotalekuan, gaueko zahagi ardorako dena prest izateko. Joanito Mendizabalek eta Joxe Ramon Aldasorok bizitasuna jarri zioten afal ondorenari beren txisteekin.

Gaur ere ekitaldi ugari izango dira: Dantzariak, trikitalariak, dantzariak... Asteazkenean, San Migel egunean, berriz, jate festa nagusituko da.



Aldaba. Saltsalde zelaian izan zen plater hausketaren herrikoia. HITZA

EGITARAUAK ▶

ALDABA

11:00. Meza nagusia.
12:00. Pilota partidak.
17:30. Ainara eta Miren trikitalariak.
18:00. Alegiako Dantzari Txikiaren emanaldia.
19:00. Haur jolasak.
23:00. Erromeria Ainara eta Mirenekin.

IRURA

11:00. Meza nagusia.
12:30. Gorritiren abereak haurrentzat.
17:30. Herri kirolak pilotalekuan.
18:30. Kataluniako Torrelles eta Llobregat herriko L'Esbart San Marti taldearen eta Poloniako Polany dantza taldea San Migel plazan.
20:00. Ruper Ordorikaren kontzertua.

TOLOSA ▶

Onddo eskaintza zabala atzoko azokan

Zizahoriak eta gibelurdinak ere aurki zitezkeen postu gehienetan

PABLO ALBERDI

400 kilo inguru onddo egon ziren atzo salgai azokako postuetan; salneurria hamar eta hoge euro bitartean zegoen. Zizahoriak eta gibelurdinak ere ikus zitezkeen.

Fruta arloan berrikuntzak izan ziren atzokoan. Aurten-go lehenengo gaztainak aurki zitezkeen bi euro eta erdiko salneurrian. Postuetan ikus zitezkeen sagar eta udare kopurua ere oso altua zen; kiwiak, hurrak, intxaurrak eta pikuak ere postu gehienak zeuden salgai.

AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Betako produktuak		
Onddo	10,00	20
Zizahoria	14,00	-
Gibelurdina	18,00	-
Oilaskoa (3.ast.)	1,50	-
Oilaskoa (4.ast.)	1,60	-
Arkumea	3,00	-
Ahatea	2,50	-
Intxaurra	3,00	-
Arrautzak	1,30	-

Produktu ekologikoak		
Kalabaza	1,60	-
Patata	1,52	-
Arroza	1,90	-
Arbi morea	3,97	-
Erremolaba	1,66	-

Berdura plaza		
Lilia	1,20	-
Krabelin txikia	3,60	-
Ziklamena	3,50	-
Alegria	1,00	-
Surfinia	2,40	-
Konifera	6,00	-

URARI TEKNIKA EBAZPIDEAK

Deskalzifikazio Alderantziko osmosia

Klorazio Iragazketa Legionella tratamendua

Produktu kimikoak zirkuitu hauentzat: ur eta bapore kalderak Bonba dosifikatzaileak

Tel.: 943 69 05 26 • Faxa: 943 69 05 02
urak@euskalnet.net
Laskibar Bailara, 1 - 4. pabilioia
IRURA

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

Bat Garajea

Ondo pasa Irurako jaietan!

Telf.: 943692205 • Faxes: 943693771 • Ibaiondo Indus.11 • 20271 IRURA

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Gerontologikoan greba mugagabeari ekin diote, Tolosan

Bertako lan baldintzak mantendu eta asistentzia-zerbitzuan kalitate murrizketarik ez izatea aldarrikatzen dituzte



Tolosako gerontologikoan asteburu eta jaietako langileek greba mugagabeari ekin zioten atzo eta kartelak jarri zituzten. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Tolosako Gerontologikoan greba mugagabeari ekin zioten atzo, aurrez aurre egingo dituzten mobilizazioei hasiera zentroaren aurrealdean, Euskal Herria plazan, beraz, egin zuten kontzentrazioarekin emanez, eta, larunbata izaki, azoka eguna zenez, bertan zebilen jendeari beren lanuzte honen arrazoia agertuz, orriak banatu zizkieten, eta ondoren herrian barrena, kartelak egin zuten, beren aldarrikapenak ezagutzera emateko.

Greba mugagabe honekin, Eibarren, arrazoi berengatik egiten ari direnarekin bat egin zuten. Kontzentrazioan parte hartzen ari zirean langileek adierazi zuten, Gipuzkoako Foru Aldundiarena den zerbitzu honetan, luze daramate beren lanaren beraren eta baldintzen inguruko ziurtasunik ga-

beko egoeran «maiztasun geroz daramagu borrokan eta argi eta garbi erakundearen tratua txarra jasaten ari gara», zioten.

Aldaketa bortitzak

Foru Aldundiak, Gerontologikoak eskaintzen duen zerbitzuaren esleipena aldatu egin zuen eta orain arte Eulen baten horren arduraduna, hurrengo hilaren 1etik aurrera Cobra izanen da esleipenduna. Baina aldaketa horrek, bertako langileen lan baldintzetan nabarmen eragin du beraien esanaren arabera, izan ere «asteburuetan lan egiten duten 18 langileek, Eulen-ekin ari direnak, urriaren 1etik aurrera, lan kontratua bukatutzat emango zaiela adierazten duen eskutitza jaso dute», eman zuten jakitera. Bestalde lan baldintzetan ere aldaketa izugarria izango dela zioten: «Subkontrata berri

honekin, lan ordu kopurua, 3.124 ordutan murriztu dute eta horrekin batera soldatak ere %25ean jetsiko dira. Eta pertsona kopuru bera zaintzeko. Hori ezinezkoa da eta zerbitzuak ere kalitatea guztiz galduko du».

Jakitera eman zuten, Cobra esleipendun berria, sortu den egoera ikusita ez omen da zerbitzuaren jabe egin. Eta gauzak horrela, Diputazioak Clece-ri, beste enpresa bati, egin omen dio eskaintza, oraindik erantzunik ez omen dagoelarik. Horren inguruan «baldintzak Diputazioak ezartzen ditu. Enpresa hauek dirua irabazteko egiten dute lan, eta hauek aldegiten badute, pentsa zein baldintza diren ezarri nahi dituztenak», zioten.

Zerbitzu honek jasanen lukeen kalitatearen murrizketaz gain, kontzentratutako langileek salatu zuten «lan esplotazio honen ondorioak, beste behin ere, emakumezkoengan eragingo lukete, langileen %95a emakumeak baitira», horrela adin handiko pertsonen zainketa ez dela emakumeen zeregina, baizik eta gizarteak egin beharrekoa, aldarrikatuz.

Greba honekin batera beste-lako mobilizazioak ere deitu dituzte eta asteburuetak langileek gain, egunerokoak ere borrokan ari direla ohartaraziz, «herriarrei dei egiten diegu elkartasuna adierazteko eta egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko», eskatuz.

Besteak beste, etzi, asteartean, eta Eibarko kideekin batera, Batzar Nagusien aurrean, Donostian, 15:00etan kontzentrazioa egingo dute Esther Larrañaga Gizarte Politikako diputatuak pertsona nagusien gaia tratatzeko, hainbat politikariek eskatuta, egin behar duen agerraldiaz baliatuz.

POLITIKA ▶

Omenaldi eta ekitaldiak, gudari eguneko ardatz

Eskualdeko herri askotan antolatu dira, 202 hildakoen oroimen ekitaldi desberdinak

J. ASTIBIA

Bihar Gudari Eguna dela eta, asteburu guztian zehar, hildakoen omenez, ekitaldi desberdinak burutzen ari dira, Euskal Herrian. Eta eskualdean ere, beste hainbeste gertatzen ari da. Horrela, Tolosalde guztian, besteak beste asteburuaren krespoidun ikurriñak balkoietan jartzeko deia egin dago, eta eskualdeko manifestazioa ere Tolosan burutuko da, bihar, 20:00etan, Triangulotik aterata. Leitzan ere ordu berean abiatuko da bestea, plazatik.

Baina, bitartean, gaur ere badira hainbat ekimen. Gaztelutik adibidez, mendi aldera aterako dira 10:00etan. Uliko bordara joango dira eta 12:00etan omenaldi ekitaldia egingo dute, zendutako gudarien senitartekoei bertara joateko gonbidapen berezia he-

lerazi nahi izan diete antolatzaileek.

Zizurkilen berriz, 9:00etan Urkamendira eginen dute mendi irteera, Pello Mari Otazño plazatik abiatuta. Gero, han bertan, 12:00etan, omenaldi eginen zaie hildako gudari. 13:00etan, hilerrian gauza bera egingo dute.

Eta azkenik, Larraitzen, Esteban Esteban Nieto Kroma gudariaren oroimen ekitaldia burutuko da 12:00etatik aurrera.

Ekitaldi hauetan parte hartzeko deia egin eta komunikatu baten bidez «gudari omena egiteko modurik hoberena, Euskal Herriaren eraikuntzan jardutea da, antolatzea eta borrokari ekitea», diote. Eta hauek, duela 36 urte Txabi Etxeberrieta zendu zenetik egun arte «bidean gelditu diren 202 gudariak» oroitzeko xedez antolatu omen dira.




Santi Arzamendi izan zuten gogoan Intxurrekoek

ALEGIA ▶ *Rekanbio* oihukatzen zuen Santi Arzamendi alegiarrak Intxurrekoek aldaketaren bat egiten zuen bakoitzean; futbolzale amorratuak zen eta Intxurre taldearen partida guztietara joaten zen. Orain dela hilabete batzuk zendu zen; atzo, omenaldia eskaini zioten Alegian lurraldekako partida hasi aurretik. Arzamendiren alarguna, alaba eta biloba zelaira irten ziren eta bertan lore-sorta jaso zuten Intxurre taldearen izenean. Txalo zaparradaren ondoren, minutu bateko isilunea eskaini zioten futbol zelaira bertaratu zirenek. HITZA



Promoioa eta eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01



IRUÑA jatetxean Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA** zozketatutako bi lagunentzako afari ederraren irabazlea:
Ramon Otamendi Zubeldia (Abaltzisketa)

KOMUNIKABIDEAK ▶

Itzulien gurpilean

Espainiako Vuelta eta Frantziako Tourra zuzenean jarraitzen dute
Xabier Usabiaga asteasuarrak eta Aitor Elduaen tolosarrak Euskadi Irratirako

JOXEMI SAIZAR

Txirrindularien azken kilometroetako izerdiak, ihesaldien berriak, erorketako samina, taldeen estrategia, protagonisten hitzak, esprintetako emozioa... Horiek eta gehiago entzuleei helarazten saiatzen den taldea da. Bizpahiru urte daramatzate elkarrekin Euskadi Irratian Frantziako Tourra eta Espainiako Vueltaren berri eta etapaz etapa zuzenean ematen. Laukoteko bi eskualdekoak ditugu — Xabier Usabiaga asteasuarra eta Aitor Elduaen tolosarra —, beste biak ez — Txomin Perurena oiartzuarra eta Joxe Mari Apaolaza lazkaotarra —. Apaolaza da esatari nagusia —asteburuetan Txetxu Urbietan—, Elduaen etapa beraren narrazioa egiten duena eta Perurena eta Usabiaga, adituak.

«Zailena bertako giroa islatzea izaten da, 500 edo 1.000 kilometrorako egonda, baina batzuetan han bertan egonda baino informazio gehiago izaten dugu. Maila txukuna ematen dugu», dio asteasuarrak. Izan ere informazioa bi modutara iristen zaie: irudia telebistaz eta berriak Internetez, antolaketa webgunen ofizialek. Giroan sartzen laguntzen du Aitor Elduaen narrazioak, azkartasun eta emozio puntu hori jarri. Lasterketan dauden txirrindulari eta zuzendariak ezin dutenez hitz egin, hemen inguruan dauden beste aditu batzuekin elkarriketak sartzen dituzte tarteka.

«Lehen irratia berriemaile bereziak bidaltzen zituen bi itzuli nagusietara, baina aurrekontuagatik moztu zuten», dio Elduaenek. 1991an izan zen. Harrez gero, Abraham Olanok irabazi zuen Vueltako azken etapetan izan zen Usabiaga.

Aurtengo Vuelta «usteka-bea» izan da eskualdeko bi kazetari hauek. «Normalean Tourrean ziklistak freskoago daude eta Vueltarako nagikeria izaten dute, denboraldi bukaera delako, baina aurtengoan egun hauek pil-pilean jarri da eta Tourra bera baino erakargarriagoa izan da», dio tolosarrak. «Drailean gorputzak jipoituak izaten dituzte txirrindulariek, buruak ez du erantzuten nahi bezala. Onenek ere hutsegiteak izaten dituzte eta erne eon behar dute. Horrek xarma eta ikusmina ematen dio Vueltari», dio asteasuarrak.

Hainbat komunikabidetan esperientzia handi izandako gizonak dira biak. Usabiaga txirrindulari profesionala izan zen eta erretiratu zenean Ser katean aritu zen. 1994an hasi zen Euskadi Irratian komentaria gisa eta Euskal Telebistan eta *Berrian* ere egiten du lan.

Elduaen Euskadi Gaztea eta Euskadi Irratian aritu da musika, kirola eta abentura programetan. **TOLOSALDEKO HITZAKO** kazetari ere izan zen hainbat urtez. Gaur egun —Vueltaz gain— *Bidaldi* bidai eta abentura programa egiten du Euskadi Irratian.

Biak «gustura» aritzen dira txirrindularitza munduan, zaleztasun handia baitute. Elduaen «maila xumean» praktikatu du eta esatari bezala aritzen da Euskal Bizikletan, Ordizia, Tolosa, Villabona, Lizartza eta beste proba batzuetan.

Gaur amaituko den Espainiako Vueltako kiniela egiterakoan nahiko ados agertu ziren **HITZAREKIN** hitz egiterakoan: Roberto Heras irabazle Santi Perezen aurretik. Hirugarren posturako Elduaenek Mancebo jarri zuen eta Usabiagak Valverde, zailantza batzuekin.



Usabiaga, Elduaen, Perurena eta Apaolaza —aurrean—. HITZA

Esatari tolosarra Vueltan

Gaztea da, baina uda honetan pauso garrantzitsuak eman ditu bere ibilbidean. Inigo Asensio 19 urteko tolosarrak kazetaritzako 1. maila ikasi du Iruñean. Uztailaren **HITZAN** egin zituen praktikak eta ondoren Donostiako Klasikoan eta Espainiako Vueltan megafoniar esatari modura aritu da.

Oriako Txirrindulari Eskolan jubeniletan aritu ondoren, azken urteotan esatari bezala aritu da Tolosaldeko hainbat probatan, Abesbatza Lehiaketan eta Aker Ibarren partidetan. «Aurtengo Donostiako Klasikorako deitu zidaten eta gero Vueltarako. Lehen bi etapak eta aurreko astean Almeriatik Cacereserainoko etape-



Inigo Asensio Vueltan. HITZA

tan aritu naiz lanean karrera mefanoian eta erlojuaren kontrakoetan irteeran», dio. Muntaiarekin harritu da, «baina beste guztiak gehiago harritu dira nire adinarekin». ◀

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduaen. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzio klinika: 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

Villabona. Anbul.: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga A.. Korreo 2

(Tolosa). 943 67 01 28

Larraia M.I. Elbarren, 95

(Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaaldea. 687 41 00 22

anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

hilberriak ▶ eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 530258 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



Pablo Zubeldia Otegi

Jauna



Atzo hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren
Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Haren animaren zuzendaria: Juan Jose Muniaín; emaztea: M. Jesus Obandoena Abukarro; seme-alabak: Ramon eta M. Eugenia Urrestarazu. Arantzeta eta Javier Sanchez; anai-arrebak: Isabel Etxebarria (Ignacio Zubeldiaren alarguna), Jose (Teresa Tellezaren alarguna), Mikaela Vicente Oiarzabalen alarguna), Josefa Jauregi (Ricardo Zubeldiaren alarguna), Pedro eta M. Carmen Izar; ezkon anai-arrebak: Rafael Obandoena eta Maxima Lasarte; bilobak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dugu eta areen etorri zaitzela BIHAR ASTELEHEN, arratsaldeko ZAZPIRETAN, Tolosako San Frantzisko parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: San Frantzisko 30, 5. C

TOLOSA, 2004ko irailaren 25ean

oharra ▶ gorputza Tolosako beilelategi egongo da. Gorputz laguntza Andoaingo panteoira, gaur 11:15ean.

Herri Irratia
RADIO POPULAR

TOLOSALDEA

1224 AM | 87.9 FM

99.8 FM | 94.8 FM

iragarki laburrak ▶

LANA

Tolosa. Neska behar da Tolosan bi haur zaindu eta ebeko lanak egiteko. Tfnoa.: 943 01 62 08.

SALGAI

Autoa. Hyundai Lantra salgai.

Sei urte. 686 87 04 07.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko irailaren 26a, igandea ▶ II. urtea

**'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK**

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Aliza, Alzo,
Ameseta, Ansoeta, Balaran, Berastegi, Elduain, Hernialde,
Ibarra, Irura, Larrin, Leizorua, Lizartza, Orendain, Oresa,
Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurritza.
Kultura Saila

Eusko
Jaurritza.
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

beroa

20

hotzena

13

goizez

arratsalde

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

20

hotzena

13

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

ZORION AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tarte
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!



URTE ASKOAN
Maialen Otxandorena Bengoetxea
(Berastegi). Gaur urtebete.
Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Manex Bengoa Izagurre (Tolosa).
Gaur 2 urte. Zorionak aita,
ama eta Julenen partetik.



URTE ASKOAN
Mireia Lezea (Berrobi).
86ko bikienak bete dizkigu
18. Animo neska!



URTE ASKOAN
Maddi Dorronsoro Olamusu
(Berrobi). Bihar 9 urte.
Aitabok eta amabok.



URTE ASKOAN
Unai Alustiza Jauregi.
Gaur 2 urte.
Zorionak eta muzu handi bat
zure etxeko partetik.
Amona Izaskuni ere
zorionak, bereziki Unai,
muzu goxo batekin.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketza. Musika eskolan
izen-ematea zabalik urriaren 2
arte. 690 34 90 09.

Belauntza. Haur eta gazteei
zuzenduta, esku pilota
ikastaroak. Izen-ematea Kultur
Etxean egin daiteke hilaren 28a
arte 17:30etik 20:00etara.

Bidegoian. XV. Kultur Astea,
goiz osoan Goiatzen azoka:
artisauren lanen erakusketa,
produktuen salmenta, sagardo
eta txakoli dastaketak...

Ibarra. Gimnastika erritmikoan
izen-ematea. 629 11 20 61.

Ibarra. Ibarrako garagardo
festan parte hartu zutenek eta
herriarrek aukera dute urriaren
2an Lasturrera egingo duten
irteerara joateko. Txartelak
Zubiaurre, Arkaitza-Azpi, Danon
Txokoa eta Danok tabernetan
eros daitezke 23 euroren truke.
Leaburu. Jubilatuen Eguna:
12:00etan meza eta ondoren
dantza saioa. 14:00etan
barkaria elkartearen, trikitilariak
alaiturik.

Leitza. Gudariaren omenezko
kontzentrazioa. Bihar,
20:00etan herriko plazan.

Ibarra. Bertakoa, ezagutzekoa
azoka berezia goiz osoan zehar
herriko kaleetan: produktuak,
ganadua, aizkolariak, artisauren
taloak, ezti...

Tolosaldea. Bihar Gudari
Eguna dela eta, egun hauetan
ebxetako balkoietan krespoidun
ikurriak jartzeko deialdia.
Esteban Kroma gudariaren
oroimen ekitaldia 12:00etan
Larraitzen. Mendi irteera
10:00etan Gaztelutik Uluko
bordara eta 12:00etan gudari
hilei omenaldia bertan. Bihar,
eskualde mailako manifestazioa
20:00etan Tolosan, Triangulo
plazan.

Zuzurkil. Mendi irteera
09:00etan P.M. Otaño plazatik
Urkamendira; 12:00etan
gudariari omenaldia bertan eta
13:00etan omenaldia hilerrian.

ERAKUSKETAK

Hernialde. Leire Markinez
pintore beasaindarrak bere
koadroak ditu ikusgai Ostatuan.

Hilaren amaiera izango dira
bertan.

Tolosa. Zaharkinak
Ferialekuan. Gaur azken eguna.

Tolosa. Ricardoren zapatak.
lurre auzoko Oskarbi tabernan
hilaren amaiera arte.

Tolosa. Txaro Medrano pintore
tolosarrak bere koadroak jarri
ditu ikusgai Sorron dendan.
Hilaren bukaera arte.

Tolosa. Olivia Sanchez Lorenzo
pintoreak bere lanak ditu
ikusgai Lanbroa tabernan.
Hilaren bukaera arte.

Tolosa. Marisa Vivanco artistak
bere pinturak jarri ditu Saikin
tabernan. Hilaren amaiera arte.

GALDUTAKOAK

Belauntza-Ibarra. Buru
uridineko perikito zuri bat
aurkitu zuten herenegun.
Jabeak 943 67 02 89
telefonora dei dezala.

JAIK

Aldaba. 11:00etan meza
nagusia; 12:00etan pilota
partidak; 17:30ean, Ainara eta
Miren trikitilariak; 18:00etan
Alegiako dantzari bikien dantza
erakusketa; 19:00etan, haur
jolasak eta 23:00etan Ainara
eta Mirenekin erromeria.

Irura. 11:00etan Meza Nagusia
abestua; 12:00etan Gorritiren
abereak; 17:30ean herri kirol
erakustaldia frontoian Vicente
eta Mindegia aizkolariak eta
Saralegi harrijasotzailearekin;
18:30ean Kataluniako L'esbart
San Marti taldearen eta
Poloniako Polany dantza
taldearen emanaldia plazan;
20:00etan Ruper Ordorikaren
kontzertua plazan.

KIROLAK

Futbola.
▶ Tolosa B-Mundarro
(Lurraldekako 2. maila. Berazubi.
16:30).

Futbol 7.
▶ Ibarrako Gazte As.-Knauf

Dec.Nuñez (1. Maila A, Beasain
1, 09:30)

▶ Irish Guinn.-Lanbroa Dickens
(1. Maila A, Beasain 2, 09:30)

Xake.
▶ III. Ibarra Hiria Saria. Euskal
Herria kalean, 10:00etan.

ZINEMA

Tolosa. Cuestion de pelotas.
Gaur, 17:00etan, 19:30etan eta
22:30ean eta bihar, 19:30etan
eta 22:30ean, Leidor zinema
aretoan.



2004-2005 ikasturtea

- Abesten ikasi nahi duzu ?
- Instrumentu bat ikasi nahi duzu ?
- Musika talde batetan jo nahi duzu ?

Ikasketak guztientzako, 5 urtetik aurrera (helduak barne).
Irakaslego titulatuak.
Izen-ematea: 943 65 45 46

NAIKARI ileapaindegia



Orain!!

» San Frantzisko Ibilbidea, 19 zk. behe - T 943 67 57 69 - 20400 **TOLOSA** » conchigarbi1@euskalnet.net

» Inagurazioa: Irailaren 27an, arratsaldeko 19:00 etan